

Ana Urkiza Ibaibarriaga

II-1990

Orain Mutrikun (Gipuzkoa) bizi bada ere, Ondarrun (Bizkaia) jaio zen 1969an.

Lizentziaduna da Informazio Zientzietan eta Diplomaduna Hizkuntzalaritzan.

Enpresa-Komunikazio ikasketak Toulousen (Frantzia) burutu zituen eta arlo honetan aritu izan da eta ari da gaur egun ere.

"Aixe-bolari" aldizkariko zuzendaria eta Ondarruko Udalaren Informazio Zerbitzuko Arduraduna izan zen eta egun Danobat Taldeko komunikazio arduraduna da.

Literaturgintzan berriz, zenbait aldizkaritan ihardun du laguntzaile gisa (Karmel, Arranondo, Ondarroa, Algacena...).

1985tik 1996ra bitarte hamaren bat lan argitaratu ditu, hauen artean Santa Teresa Lisieuxkoaren idazlan guztiak euskaratu ditu frantsesetik.

Bestalde, azken hamahiru urteotan 21 literatur sari eskuratu ditu.

GABRIELA



z dakit zein liburutan irakurri nuen baina hil hala biziko sententzia iruditu zitzaidan: «idazteko, lan on bat burutzeko, ezinbestekoa duk bakarrik egotea».

Esaldia serios hartu, kotxea eta maleta prestatu eta nere patuak ninderamanera ibiltzea erabaki nuen.

Bidaiatzeko egun aproposa aukeratu eta bakardadearekin akordioa sinatzera abiatzeko prest.

Hamasei orduko bidaiaren ondoren eta kotxea gasolinarik gabe gelditu behar zitzaidala ikustean, etxetik atera arazi ninduen sententzia burmuinean nonbait galduta, ahantzita zegoela konturatu nintzen; ordezkotzat, «gizona jana eta loa behar dik» delakoak menperatzen zidan aurretik izan nekazeen ideia. Jadanik gautua zen eta esaldi menperatzailea errepikatzen hasi aurretik, zapaldu nuen lehenengo herrizkako lehen ostatuan sartu nuen muturra.

Leku aparta, isolatua eta ixila; idazle senak ez nau bide okerretan zehar ekarri, pentsatu nuen.

«Baliteke hiruzpalau egun gelditzea» erantzun nion errezepzioko emakumeari fitxa betetzeko datuak eskatu zizkidanean.

Ez detektibea naizelako, gogoratzen ez dudan liburu hartan «detaile txikienak istoriorik harrigarrienetarako oinarri izan daitezke» irakurri nuelako baizik, ostatuko apopilo bakarra nintzela ulertu ahal izan nuen errezepzionistak liburu astun eta hautseztu

batetako lehen orrialdean jarri bait zuen nere izena. Argi zegoen aurretik besteren bat egona zela, baita errezepzionistak ez zuela inork nor izan zen jakiterik nahi, izen deitura eta datu guztiak lurperatu bait zituen behin eta berriz gainetik tintaz pasatako zirriborroen azpian.

«Afaria bederatzietan eta gosaria zortziretan» esanez, gelako giltza eman eta sarreratik eskuinetara zeuden eskilaretara zuzendu zituen begiak nere gela goian zegoela adierazteko. Maletak eta giltza hartu eta egurrezko eskilara eta hauen buruan ate bat, bakarra.

«Gela bakarra, apopilo bakarra» operazio matematikoa egin eta errezepzioan bildutako inpresioak aldatu nituen.

Zerrailean metalezko giltza handia sartu, bi buelta ezkerretara, bi buelta eskubitara eta atea ireki nuen; irekita zegoela konturatuko nintzen. Geroago, eskilarako asken mailan utzitako maleta gelan tatarrez sartzean, zerrailaren gaineko aldean zertxobait ikusi nuela iruditu zitzaidan: burua bueltatu eta esan bezala, bazegoen zerbait baina ez zerrailaren gainaldean, aldamenean baizik. Inskripzioren bat izango zela otu zitzaidan baina betaurrekoak maletatik ateratzeke, nik irakurtzeko baino hizki txikiagoak zirenez, amore eman behar izan nion nere jakinminari.

Gela oso txikia zen; armairu, ohea, mahai txiki bat, aulkia, flexoa eta lehio txiki bat «nondik txorien soinua entzun eta eguzkiaren errainuak sartuko ziren»

Maletan ekarritako galtza parea, kalera ateratzerik izan ezik bera nahikoa, jertse lodi bat, orriak, hiztegia, betaurrekoak eta aitak oparitutako estilografika atera nituen.

Gela txiki hartan lan egitea gustokoa izango nuela sentituz, nere gorputzeko atalei aulkia eta mahaia nola egokituko ote zitzaien probatu nahirik, betaurrekoak soinean jarri, estilografika behatz artean sartu, folioak bertikalki jarri eta flexoarekin arazorik ez nuela izango ziurtatuz, hasperen egin nuen, ukalondoa mahai gainean eta ukabila masailean sartuz. Hortan, urteek horitutako horman segoen inskripzioaz jabetu nintzen. Ga... ga... burua zuzendu eta «Gabriela» irakurri nuen. «Gabriela ¡bai izen poetikoa!» atera zitzaidan.

Tintaz idatzia zegoen, Cervantes baten eskuletraz, bitxia benetan. Gizon batek idatzia eta maitemindutako egoera baten espresio izango zela imajinatu nuen.

«Ziur maitasun inposible horietako istorio baten aurrean, kupidoren gezia soinetik ateratzerik izan ez zuen eta gela barnean harrapatuta, burua eta bihotza galduta aurkitzen zen Don Juan baten errebindikazio iraultzailearen demostrazio gailena dela. Gabriela!» asmatu nuen.

Aulkia utzi, betaurrekoak soinean nituen gunea probetxatu, atea ireki eta zerrailaren aldameneko inskripzioa irakurri nuen... »Gabriela»

Zerraileko Gabriela ez zegoen tinta beltzez jantzita hormakoa bezala, haiztoz ebakitako G eta R itsusi batez baizik. «Zein diferent den emakumea soineko beltzez edo bakerotan ikustea» erreflexionatzeari ekin nion.

Ohean etzan nintzen; lumazkoa, amonaren etxekoa gogorarazten zidan antzeko lumazko ohea zen eta gogaipenekin segitu nuen; ardi gazta probatu gosez joaten nintzen baserrira eta igande goizetan txoriek iratzartzen ninduten, teilatupeko abian bizi ziren txoriek...

«Oso ondo» azaldu nion nere nere buruari, «umetako istoriorak eta sentipenak bergogoratu eta pertsonaia inozenteen deskribapenak egiteko balioko dit» esan nuen posez eta ahots gorean. Burkoan burua jartzea egin nuen, gelaren zeruan G handi bat antzeman nuenean. «Gabriela!» hots egin eta ikaraz tentetu nintzen. Hilerri batetan aurkitzen ote nintzen galdetzea ez zitekeen ideia guztiz burugabea izango. Izen poetikoen erasoa min nuen, hala ere, ez zen izango Don Juan etsiaren inskripzio panfletarioekin topo egingo nuen azken aldia; eskilaretan, bainuan, lehioan, mahaian, aulkian, nonahi aurki zitezkeen marmol zurian urratsa uzten zuen esku ikustezinaren arrastoa, nonahi betirakotu zuen maitaleak ordurako arrunta neritzan Gabrielaren izena.

Bederatziak jo zituzten herriko kanpandorrean eta afaltzera bajatu nintzen; jantokian, mahai bakarra zegoen eta mahaiaren inguruan lau aulki: ostatuko jabearena, errezepzionistarena zeina

ostatu jabearen emaztea zen, ostatuko alabatxoarena eta apopiloarena, nirea.

Afaria mahai gainean zegoen: une batez, jaten asteko ni bajatu artean zai egon zirela pentsatu nuen baina beranduago jakin arazi zidatenez, bederatzietako trena pasatzen entzun arte, ez zirela afaltzen hasten jakin nuen.

«Ordu punta guztietan pasatzen da trena» esan zidan errezepzionistak.

Trena berandutu egin zen eta janaria hotza zegoen.

«Trena atzeratzen den bakoitzean, istripuren bat gertatu delakoan egoten gara, urduri, eta eskerrak ematen dizkiogu Jainkoari, zoritxarren bat gertatuta ere, gure ostatuaren aurrean ez izanagatik. Istripuek beti dakartzate oriotzapen txarrak. Bidaiariak herrira heltzean, istripuaz oroituko lirateke eta inork ez luke hemen gaua pasatzerik nahi. Zer janik gabe geldituko ginateke» lotu zituen esaldiak eta inpresioak emakume aurpegi tristedunak.

Neskatoak harriduraz begiratzen zidan «liluraz, hileetan (urteetan ez esatearren) inguru bakarti honetan inor ikusi ez duelako, nahiz eeta geltokiaren aldamenean bizi» azaldu nion nere buruari.

Erlojua eta haizto zarata entzuten zen eta noizbehinka, norbaitek aulkian ipurdia mugitzean, sokek ateratzen zuten garrasi itoa.

«Nor zen Gabriela?» galdetzea otu zitzaidan eta ez nor da Gabriela, gizakion izkutuko zentzua dela medio, izen poetiko haren jabea esistitzen ez zelako inpresioa bait nuen.

Errezepzionistak ez entzunarena egin zuen eta sopa platerean sartu zituen ezpain gaineko ile beltzak.

Neskatoak adi-adi begiratzen zidan, ostatu jabeak erlojuari segundu bat lapurtu zion.

«Nor nere aurreko azken apopiloa?» berriro hariari lotu nintzanion nolabait handik sekreturen bat gordeta zebilela sumatuz.

«Deabrua zuen barruan» hots egin zuen neskatoak azken apopiloari buruzko galdeari erantzunez. Ikara bezain algara handi

batekin apurtu nuen une hartako isiltasuna, neskatoak ere irribarre egin zuen lau hortzekoari haginekin eutsi eta bekokiaren alde bietan behatzak jarriz zezena bailitzan.

Atsegina gertatu zitzaidan neskatoaren umore garbia.

«Zoaz lotara!» agindu zion amak zaplada gorri bat eman ondoren.

Neskatoak aitari begiratu zion bere defentsan aterako zelakoan edo baina aitak ez zuen apopiloaren aurrean emazteari kontra egiterik nahi izan. Ondo baino obeto ezagutzen zuen errezepzionistak senarraren izaera nolakoa zen, baita egoera berrien aurrean nola joka zitekeen eta ezagutza hazrtaz baliatzen zen ostatua bere haizara eramateko orduan ere.

«Ikasiko duzu nagusien esana errezpetatzen» murmurikatu zuen hortz artean amak.

Neskatoarekiko erruki paregabea sentituz, nigatik umea ez zigortzeko eskatu nien eta bakartzeko mesedez nere galdera lekuz kanpokoa izan bazen.

Errezepzionista platerak batzen hasi eta «atzerritarrekin hitzegitea debekatua dauka, berak hori ondotxo daki» esanez, sukaldera joan eta platerak garbitzen hasi zen ahopean zerabilen marmarraren olatu isila sentitzen zelarik.

Egoeraren latzaz artegaturik «gosaria zortziretan, ez da?» galdetu nuen aulkitik altzatzeko zeinua eginez.

Ostatu jabeak ogi apurrekin jostatzeari utzi zion.

«Erretzerik nahi?» gonbidatu ninduen patrikatik ateratako zigarro paketea eska iniz.

«Zergaitik ez?» pentsatu nuen neskatoaren zaflatekoaren errudun sentitu arren.

«Bai, eskerrik asko» erantzun eta berriro aulkian jarri nintzen.

Zigarroa zein lasaitasunez pizten zuen ikusita, edonork baieztatuko zukeen zalantzarik gabe gizon hura bestelakoa zela, ez bere

emaztea bezalako urduria, arrazoiarekin obratzen duten horietarikoa baizik.

«... Traston, Lord Traston» ahozkatu zuen pare bat minutu isilpean egon ondoren. «Hori zen bere izena, Lord Traston» errepikatu zuen. «Hala adierazi zigun behintzat. Urrutitik etorria zela esan zigun, Sansilvania edo horrelako herrialde batekoa zela, ez dut gogoratzen. Ulerzazu, ez dugu bat ere gustoko hortaz hitzegitea. Ezkondua zen baina «gaztetako maitasuna sentitzera, berriro maitemintzera etorri naiz» esaten zuen. Gizon aberats horietariko bat, badakizu... »

Baiezkoa egin nion buruarekin, istorioari segitzen niolakoaren eta izaten zidanarekin ados nengoelakoaren plantak eginez.

«Aberatsa izateaz gain asko bidaiatutakoaren begia eta kolegio onetan ikasitako urrezko hitzez jazten zituen jatorduetan kontatzen zizkigun istorio miragarriak: zeer egiten zuen, nora joaten zen, norekin hitzegiten zuen eta luze bat kontatuz. Halere, kezkatzen hasi ginen, taberna hain alai eta berritsu, istorio ezezagun eta berri goseak erakarritako hainbat eta hainbat belarri asetzen zituen gizon hark, gosaria hartu ondoren bere gelan sartu eta afal orduan jaisten zenerarte zer egin ote zezakeen ezin asma genuelako. Gelan ez bait zen sekula inolako zaratarik entzuten.

Zenbaitzutan, orduak botatzen zituen eskilara buruan jarrita, hitzik egin gabe, zirkin egiteko baino kemen gutxiago bailuen.

Noizbait tabernan ikusi izana gogoratzen dut. Gorputzila antzo, han bazterrean jarrita geldi, begiak bizigabe, noizean negar malkoren bati irrist egiten uzten ziola. «Traston jauna, Traston jauna!» galdetzen zion neskatoak «mutil hadiek ere negar egiten al dute?» baina erantzunik ez izatean eta malkoak xukatuz, ez negarrik egiteko esaten zion. Bapatean, beste pertsonaren bat bailitz, tabernako sokoa utzi eta belarritik belarrirako irribarrea erakutsiz, gelara igotzen zen.

Denbora pasatu hala, afal denborako orduetako istorioak bukatuz joan ziren eta gure apopiloarekiko sentimendu likits batek hartu zigun barrua; isilean afaltzen zuen, burua altxatu gabe eta

sarritan, zerbait oroituko bailitzaio, arrapostuan eskilarak igo eta gelan sartzen zen.

Goiz batez, dotore garbituta eta jantzita bajatu zen gozaltzera eta «maitasunaren bila noa» esanez, bigarren klaseko treneko billete bat erakutsi eta alde egin zuen.

«Ez da bueltatuko» esan zidan emazteak» ezer ordaindu gabe aldegiten utziko al diozu?»

«Ez baldin bada bueltatzen, bere jantziekin geldituko gara» erantzun nion emazteari Traston jaunak soinean zeukana besterik ez zuela eraman bergogoratuz.

Emaztea, bere artekoarekin gelditu eta gelara igo zen Traston jaunaren aberastasunak kontabilitzatzeko asmotan.

«Maleta bat, maleta huts bat eta mila folio, horixe da gizon horrek duen guztia» jakin arazi zidan garrasika Traston jaunaren gelatik jeitsi eta han aurkitu zuen guztia jantokiko mahai gainean zabaldu zidanean.

Maleta huts bat eta poliki-poliki folio guztiei eskubian goi aldean jarritako zenbakiak erakusten zuenez, mila folio, horixe zen gizon hark gelan zuen guztia, bainugelako hortzeskubila eta bizarra kentzeko xaboia kontatu gabe.

«Gizon hori ez da bueltatuko» errepikatu zidan emazteak.

Ostatuko jabea isildu egin zen. «Ez da gogoratzen istorioak nola segitzen duen» pentsatu nuen. Bostgarren zigarroa biztu eta erlojuari begiratu zion. Hamarrak eta sotzi.

«Zortzi minutu!» esan zion sukaldetik kezkati etorri zen emazteak.

«Laister izan behar du hemen» atera zitzaion senarrari.

«Piztu iezadazu zigarro bat» eskatu zion errezepzionistak.

Ordu betean zigarro pakete erdia erre genuela konturatu nintzen emaztearentzat ateratzen zuena askena zela ikusiz.

Patxadaz piztu zuen, automatismoz, ohiturak bultzatuta, eguneroko gune historikoaren lekuko izango zen edo unea definituko

zuen zigarroa. Instanpatean, hamar segunduz, zigarro berria esker eskuan eta ezpain artean zuena eskubian hartuz, sorginduta bailego, egoera hipnotiko hartatik iratzarriko zuen tren hotsaren zai gelditu zen.

«Hamarrak eta hamaika, atzo baino bi minutu t'erdi beranduago» esan eta sukaldean izkutatu zen emaztea.

Ostatu jabeak emaztearentzat piztu berria zuen zigarroa eska ini zidan eta istorioari lotu zitzaion:

«Goiz hartan, ostatua erosi genuenetik lehenengo aldiz, korreoseko Victor sartu zitzaigun telegrama bat zekarrela. Gure familia guztia hemengoxea da eta atzerrian ditugun lagunek ez digutenez idazten, esan bezala, Victorrek ez du lan handirik izan gurekin. Sekula ez zigun ezer ekarri, ez eta egun onik ere: Traston jauna azaldu artean, gure esistentziaren berri izango ote zuen nere zalantzak ditut. Gu bezain harriturik, telegrama norena eta zeri buruzkoa ote zen jakinminez edo, mostradorean ukalondoa sartu eta guri begira gelditu zen zer entzungo prest.

«Traston jaunarentzat da» irakurri zuen emazteak.

Korreoseko Victorrek baiezkoa egin zuen buruarekin, bazekila norentzako zen eta zirkinik ez, berean segitzen zuen, mostradorearri josita.

«Nork zekien ostatu honetan zegoela? Nork ostatu honen helbidea?» galdetu zuen Victorrek buruan hazka eginez.

Elkarri begiratu genion, galderaren erantzuna ezin genuela antzeman konprenituz.

«Transilavania» letu nuen emazteari eskutuk kendutako telegrama azalean.

«Emaztea! Emaztearena izan behar du» otu zitzaidan.

Victorrek, karta zorroa lepoan hartu eta jakinmina asetu bide zuela, kartak partitzeari ekin zion. Laister enteratuko zen herria nere ahotik ateratako notiziaz.

Telegrama errezepzioko mahai gainean geratu zen, inork ikutu nahi ez duen asuna bezala.

Arratsaldeko tren guztien zai egon ginen Traston jauna noiz etorriko, Victorrek eskuartean utzi zigun arduraz ahaztutzeko gogoz.

«Telegramak ez dira gauza onak» zioen emazteak «guri inork ez digu idazten eta denok gaude osasuntzu» errepikatzen zuen behin eta berriz.

Bederatzietako trenean etorri zen Traston jauna berriro ikusiko genuelakoaren itxaropenak galtzen hasiak ginenean. Nik emazteari keinu egin niola gogoratzen dut, apopilo zintzoa zela eta Traston jauna ez zela ihes egiten duten horietarikoa adieraziz. Eta berak buruaren mugimendu leun batez erantzun zidan, ados zegoela agertuz.

Etxean lehio bi irekitzean erazten den korronteak dakarren haizea bezain zakar, hain baldar eta zaratatsu sartu zen etxean, mozkorrak zegoela iruditu bait zitzaidan. Sonbreilua kendu eta eta andere baten aurrean bailego, mahaian bilduta geundenoi erreberentzia txairo bat eginez makurtu eta «maiteminduta nago» oihu egin zuen.

Eskuan zekarren krabelina beltza usaitu eta publiko aurrean antzesmena bukatu duen artista bailitz, mahai gainera jaurti zuen. Ez zitzaigun bat ere gustatu eta inork ez zuen lorea ukitu Traston jauna berak afaltzera bajatu ondoren berarekin eraman zuen arte.

Traston jaunaren adinarekin berriro maitemintzeak zer suposa zezakeen pentsatzeko betarik utzi gabe, gelarako eskilarak lepoz igotzen hasi zen izpiritua zein gazte sentitzen zuen agertarazteko. Gora heldu zenean, eskilarak ez nonbait eta atea jo zuen. Gelan sartu, kantari zebilen.

Erantsi bezain laister, jangelara etorri eta mahaian jarri zen.

«Traston jauna, telegrama hau heldu da gaur goizean» esan zion.

Harrituta edo, azalari begiratu zion: bera zela eta zuzen nenbilela ikustean, haiztoa hartuta telegrama azala ireki zuen.

Aurpegia udaberritik udazkenera aldatu zitzaion, ezer esan gabe, mahaia utzi eta larogei urteko agure baten gorpuzkera hartu-

rik, oinak arrastaka, eskilarak banan-banan igo zituen begiak kartazaletik apartatu gabe eta behin eta berriz edukia irakurriz.

Egun bi egon zen gosaltzera eta afaltzera jaitsi gabe. «Telegramek ez dakartela gauza onik... jakingo ez banu... » errepikatzen zuen emazteak, matorduetan mahaira azaltzen ez zen bakoitzean.

Hirugarren egunean, gosaltzera jaitsi zenean, ez ginen ezer galdetzera ausartu. Ez zion inori begiratzen, bere mugimenduak pausatuak ziren; kafesnea gustatzen zitzaionez, katilukada handia prestatu zion emazteak, eta ogia mermeladaz busti; pusketak egin eta zatika-zatika katiluan sartu zituen guztiak baina probatu ere egin gabe, han aldegin zuen trenera zihoala esnanez. Ez zuen inori begiratu beharrik izan, begiak galbai zituela konturatzeko.

Etxetik atera zenean, emaztea mahaitik altxatu eta hiru egun haietan notizi egarri eduki gintuen telegrama orriaren bila joan zen Traston jaunaren gelara. Ez zen erraza izan papertxo zimurtua aurkitzea, gelaren hormak frontoitzat hartuta, homaz-horma ibili zen pelotatxoak ohe azpian bukatu bait zuen.

TRASTON ANDEREA ENFERN-EKO HOSPITALEAN HIL DA. HILETAK BIHAR, 6-ETAN.

«Nik ez baneki, telegramak oso gauza txarrak direla... » marmarikatu zuen emazteak.

Ohe gainean jarri ginen biok Traston anderea nolakoa izango ote zen imajinatuz, senarra hiletetara zergaitik joan ez ote zen jakin ezinik...

Gela goitik behera miatu genuen, gizon bakarti haren beste arima erdia zokoren batetan kausituko genuelakoan... Orduantxe ikusi genuen lehen aldiz, sabaian «Gabriela» izena.

«Gabriela Traston» ahozkatu zuen emazteak.

Ez ginen gehiago sartu Traston jaunaren gelan, Traston anderearen izpiritu atxilotuak merezi zuen lasaitasunez atseden har zezan.

Egun harrez geroz, Traston jauna egunero ateratzen zen: trenean bidaiatzen zuen eta gauero, krabelin beltz bat etxeratzen zuen. Ez zen gehiago haren ahotik atera soinurik entzungo, ez zuen istorio miragarririk kontatuko...

«Krabelin bat gehiago» esaten zuten tabernakideek geltokitik etorri bakoitzean, bidaia batetik bestera, ilea zuritzen eta bihotza kiskurtzen zihoakiola antzematean.

Geroago frogatu izan dugunez, Gabriela izena idatzi eta Gabrielaz ametsetan pasatzen zituen arratsaldeak.

Emaztearen arimak galdu bide zuen. Goiz batez trena hartu eta ez gehiago bueltatu. Askorek ikusi zuten treneko bagoi zaharrean sartzen baina inork ez du gogoratzen bederatzietakoan bajatu zenik.

Apaizaren hipotesiak, emaztearen arima ibiltzariaren atzetik abiatu zela azaldu zuen. Alguazilarenak, ostatua ez ordaintzearren ihes egin zuela, halako kasuak askotan ikusiak zituela eta beretzat ez zeukala inongo misteriorik argitu zuen. Don Fermin medikuak, bihotz arazoek gizon sentiberak eromenera gidatzen zituela adierazi zuen. Horrela, zapatagileak, dendariak, korreoseko Victorrek eta treneko gidariak berak ere, Traston jaunari buruzko istorioen gaineko istorioak burutu zituzten.

Bere apertenentziekin gelditu ginen, alguazilak hala erabaki bait zuen: ez zigunen ordaindu, bere aberastasunekin gelditzeko eskatu zigun. Goian, armairuaren bazterren batean izango dira zerbait arropetan, hortzeskubila eta xaboia bere maleta zahar handian gordeta.

Hamaiketako trena pasatzen sentitu genuen. Ostatu jabeak hasperen egin, zigarro paketea hartu eta «herri txikiko gauzak orapro-nobis» esanez istorioa bukatutzat eman zuen.

Hasiera batean istorioa idaztea pentsatu banuen ere, lan neketsu harek eskatzen zuen konbentzimendurik ezean, ideia deserrotua bertan behera erori zen.

Minutuak pasa hituen mahaian jarrita istorioari zerbait berri erantsi nahiz edo, eta noizbait Traston jaunari buruzko hipotesi berriak kontatuko ziren zentzazioak zurbildu ninduen.

«Istorio arrun bat» esan nion nere buruari eskilarak altzatzean, eltzearen ipurdian babarrunak erretzen hasiak zirela onartu nahi ez nuela.

Ohean sartu nintzen. Nere kezka bakarra, hurrengo egunean zertaz idazten hasiko ote nintzen pentsatzean zetzan, argia itzali nuen, ez denbora luzez.

Maleta burutatu zitzaidan, oinortozik, armairua ireki eta zoko batean, maindire batzuen azpian, maleta zaharra aurkitu nuen. Orduan, errezepzionistak garrasi egiteko arrazoi sobera izan zuela iruditu zitzaidan. Han ez zegoen ezer. «Maleta huts bat, maleta huts bat eta mila orri!» kontakizuneko esaldia gogaitu nuen. Mila orri...

Noski! Horixe zen istorioari falta zitzaiona. Non zeuden mila orriak? Armairua goitik behera arakatu arren, ez nuen deus aurkitu. Non demontre?

Mahaian! Mahaiko kaxoain! Otu zitzaidan halako batean! Mila orriko liburutxo bat bilatu nuen bertan. Betaurrekoak jantzi eta Gregor Traston-ek izenpetzen zuen kuadernotxoa irakurtzen jarri nintzen.

Hasierako bost orriak zuri zeuden, bat, bi, hiru, lau, bost zenbaki gotikoz izendatu zituenak. Seigarrenean dedikapen bitxi bat agertzen zen «IZEN BATI» eta ondoko zazpi, zortzi eta bederatzigarren orrialdeetan, hormako Cervantes hizki berberez «Gabriela» zazpigarrenean, «Gabriela» zortzigarrenan eta «Gabriela» idatziz amaitu zuen orria bederatzigarrenean. Hamar eta hamaikagarrena ere zuri zeuden eta hambigarrenean hauxe irakur zitekeen:

«Artegak iratzarri nau. Ezin luzaroago ohean gelditu. Jeiki! Begiak hertsi eta sentitu! Besterik ez, sentitu. Maindirea, mantak, zein lakarrak diren... Kolorea manta laztasunaren lapur. Luza esak ezkerreko eskua eta har itzak berotu asmoz manta gainean utzitako prakak, alkandora eta galtzetinak eta ohe barnera sartu. Zein traketsa haizen iluntasunean jazten... Ipurdian utzi dut kremailera, berriro erantsi eta jantzi behar. Jantzi geltokira joateko. Ireki begiak; zazpirak. Ohea egin gabe, ireki atea. Ostatua isiltasunaren

errege da, sekretuarena. Sitzez jandako eskurrezko barandilatik eskuineko eskua, zazpi urte, praka apurtuak. Eskilara zaharrez zarata dagite.

«Gregor, ihes nahian?»

«Ez amona, pixagalea daukat»

«Lehen ura eta orain pixa?»

Larogei eta bi urte zituen amonak, beti ernai. Zigarroa erre eta txokolaterik gabe utzi ninduen.

Pertsianak behean daude, atean «Closed». Kanpaiekin batera atea ireki dut, ez da kanpanilarik entzun. Haize hotza, zorrotza. Baita labana. Gazta ona afaritakoa. Minitu bi oinez. Zapatak kenduko ditut, baita galtzetinak. Belarra buztia dago, irunts hezea. Behatz artean sartzen zaizkit, intrusoak. Hotza! Eskaleen ohe paregabea! Transilvanian asko dira egon, geltokietan gehienbat. «Zertxobait utz iezaiozu anaia errukarri honi» eta txanpon bat utzi nion. Segika izan nuen egun guztian eta azenik soinean neraman guztia eman nion, hain zen handia sartu zidan ikara...

Ikara bai, ikara handia etxea uzten den lehen gauean, izua emazteari asmatzen zaion lehen gezurrean, atsegin itsua etxetik ihes egitean...

Praka barrenak busti zaizkit. Zirrarak hartzen nau pausu egitean, bostsehun metro geltokirako.

Zeru astuna, berun tanta. Internatuko lehiotik ikusten zen bezalakoa. Sekula ez nintzen klaseko number one izan, ez argiena ez nintzelako, maisuak begi onez ikusten ez ninduelako baizik.

Paperezko hegazkinen patua muturra lurrean inkrustatuta bukatzea zela pentsatsera heldu nintzen «eta dena pilotu lodia kontratatzearren». Sekula ez eta hegan egin zuen hegazkinaz egun hartan, sekula ez dena behin izaten omen da, zioen gure amonak.

«Nor izan da?» maisuak.

Irrifarreak.

«Badakit ezkerreko lerro honetako norbait izan dela»

Mutu.

«Iribarreak? Ongi da, lerro honetakoak izan ezik, beste guztiok etxera!»

Iupi hotsa.

«Eguerdi guztia geldituko zarete hemen jan gabe, nor izan den esaten ez baldin badidazue».

Atzean zurrumurrua.

«Maisu jauna, Traston-ek badadi nor izan den jauna»

Motina.

«Bai? Egia al da hori Traston?»

«Bai jauna».

«Esango al dizugu nor izan den?»

«Ez jauna».

Irribarrea.

«Klaseko azkena izan zaitezen nahi al duzu Traston?»

«Ez jauna».

«Orduan, esan nor izan den».

«Ez jauna».

Jokabidea zero; beste nota guztiak hamar atera arren, ez zegoen zero hari aurre egingo zionik eta larruzko baloia zuen Vangover dendariaren semeak, mediku izan nahi zuenak irabazi zidan harrez geroz, baina ez, berriro diot, argiena ez nintzelako.

«Nora jauna».

«Berdin da, edonora».

«Nola jauna».

«Joan etorri bat, bigarren klasekoa».

Gissen izeneko geltoki baterako txartela erosi dut, bigarren klasekoa; lehiatilako andereak ez dut asmatu zein den nere gogoa. Ez dut familiarik hemen. Ez dut nor bisitatu. Ezin al ninteke hala ere, trenez ibili? Garraiobide erromantikoa. Zaldiko-maldikoetako doinua, sorginaren trena, hiletan garbitu gabeko arropa zahar usaia, kaxoi zaharrak, mila umeren bi mila eskutan gogoz eutsitako treneko kartoizko txartelak, gorriak, berdeak, moreak, marroiak, eta bi minutu zoriontsu, hamar buelta eta tunela hamar aldiz igaro behar. Hasieran garrasi egiten, azkenean afonia eutsi ezinik. Trena».

Hamaseigarren orrialdean eten bat agertzen zen. Hamabiak jo zutenean, trenaren txistuak lehioko kristalei dardar eragin zien.

Tarte honetan, txartela erosi ondoren berriro ostatura bueltatu zela esatea ahaztu zitzaion Traston jaunari.

Orrialde berean baina beheraxeago, honela segitzen zuen.

«Ostatuko sukaldean norbait sumatzen da. Gaur soinbreilua jantziko dut, igandetako trajea, gorbata. Eta apunteak hartuz bidaiatuko dut.

«Nora zoaz gosaldu gabe» dio ostatu jabeak.

«Gaur maitemindu egingo naiz».

Zerutiko tantto bustiek aurpegia blaitzen. «Ez busti burua seme, eztula duzu eta», ez zekien amona gaixoak euriak bide erdian harrapatu ninduela esaten nionean, «Betiko kontu zaharra», elizako gorgoletan jaio iturri azpian garbitzen nuela burua. Gaixoa! Bederatzietakoa da nerea. Bost gutxi. Berandu beti eskolara, badakizu, erloju falta.

Ulertzen diat bai.

Eskuan patrikan. Beti zuloz beteak egoten ziren eta handik galtzen zitzaizkidan kanika txinarrak. Ikusten kanikaren bihotzetik erne den kolore anila? Eta hik nola dakik kanikak bihotza duela? Txinarra delako. Eta alemaniar bigatik aldatu nion Vangover-i, garagardo asko edaniko kanika tripaundi horietako bigatik, mugitzen ez diren mastodonte horietarikoengatik. Haietaz

ere, dakidan azkena, patrikan sartu nituela. Itsas hegiren batetan bazkalduko dute, harri arruntak bailitzan.

Bakarrik lehiatila aldamenean, trenean, apunteak eskuartean. Azterketa gainditzeko mahai azpian gordetzen nituen paperen antzo.

«Zer da Traston eskuartean duzuna?»

«Ezer ez jauna».

«Ezer ez?»

«Amaren errekaduak jauna!»

«Con que amaren errekaduak eh? Erakutsi!»

Eskuak izerditan, arkatzez idatzi formulak ikatz bilakatu ziren.

«Jarraitu azterketarekin»

Biharamonean amonari eraman beharreko porru eta tripilekin gelditu zen maisua. Ze erremedio!

Trenak txistu jo du. Une batetik bestera gurpilak mugitzen hasiko dira eta cuatro por cuatro baten erritmoa hartuko du, DO, isila, isila, isila, RE, isila, isila, isila, MI, sila, sila, sila, FA, sil, sil, si, SOL, si, si, si, LA, si, si, si, SI, sisisi, Siíiii... Txistua bezain fist!

Tanttoek kristalaren aurka erasotzen diardute, errekatxoan denak batera negar malkoak bailiran, lehiatilan errepideak sortuz lurrera erortzen diren... Putzuetan putz.

Hemen ez zaik sartuko horraitio. Ehun eta hamabost kilotako zerra gaztea, sonbreilu panpox, musu gorri bezain berritsu eta hiru putrerekin. Agur hire ametsak, adeu trenaren emari erromantikoak.

«Ene, hemen giaon bakarra semeakl, berton egingo dugu leku!».

Ene jainkoa! Gureak egin ditiak!

«Umeak gorrotatzen jauna?»

«Zer?»

Banekien zure aurpegiak ez zuela papelerdo horietarikoen antza. Ez horixe, mila metrotara antzematen ditut. Geldi Isaac! Atzo, amona bisitatzera etorri ginenean, gaiso dabil atsoa, bai bihotzekoa, badakizu adina eta... Hona Alex, eman Isaac-i motorra eta isilik! Bai, zenbat urte dituzu? Beno, hau nerea galdetu beharra ere, zera esango duzu, beno zu baino gazteago zirudien batek, ez bait zen zu bezain burusoila, umeak gorroto zituela esan zidan».

Tren guztia hamar probientzietako jendea beteta eta ehun eta hamabost kiloak hire aldamenean.

«Jauna! Utzi mesedez Ferdy-ri lehioa, zorabiatu egiten bait da. Mila esker. Beno egia esateko, nere senarrarak dio nahita egiten duela zorabiatuaren itxurak: lehiatilan joatea dela berea; benetan nahi duena pintorea izatea omen da eta hortarako inspirazioa behar omen du. Begiraizu nola gelditzen den kanpora begira! Aingerutxoa dirudi... Hasperena. Amaren ametsak. Oso argia da eta gorrarenak egiten dituen arren, oraintxe bertan esaten nagoena ere entzuten diardu. Oso mutil askarrak dira, Alex-ek kimika...»

Trena mugitzen hasia eta zu lehiatilarik ezean, «Isaac-i berriz ez zaio kimikarik gustatzen», lerro bat bera idatzi gabe, Alex, Isaac eta Ferdy aulkian gora eta behera, «bidaia luzea dugu gaurkoa», data jarriko dut, eskua berotzeko bakarrik, hariketa giza, gero lokartuko direnean ideiak txertatzeko.

Ongi etorri bizitzaren trenera jarri duk lehen orrialdean »nere senarra itsasgizona da, puentekoa eta egunero idazten du, badakizu, non dauden, noiz heldu diren, eta itsasoko gauzak, ulertzen? Oso familiako gizona. Familiarik bai?»

«Emaztea»

«Ene, eta umerik ez? Nere Pierre-k beti esaten du, gizonak zoriontsu izan behar baldin badu, hiru aingeru behintzat derrigorrezko zaizkiola».

Geltoki txiki bat, lehen geldiunea, txingorra, lehioak zuritu egin dira, treneko arnasa gainditu zaio kanpoko hotz hezeari. Ez dakust zenbat jende sartu, ez zenbatek hanka egin duen.

Izkiriatu Traston, nola pasilura begiratu duan, nola mutu gelditu haizen, nola inoiz haren edertasunik ikusterik izan ez duan. Idazten dut bai, gaur maitemindu naizela, bihotzaren zertzeladek ez nautela abandonatu, bostgarren dimentsio batetan mugitzen zen gorpu garden bat ikusi dudala...

Trena beteta dago, ez dago lekurik, aulkia eskaini behar diok.

«Andere... »

«Eskerrik asko»

Eskua eman dik eta hik aterkia hartu diok. Aurrez aurrre jarriko zarete, begi berdeak ditu, itsaso sakonaren kolorea, hosto pozointsuenaren esentzia bera, birjina, itsaso barearen lasaitasun zuria aurpegian, liburuxka lodikote bat eskuetan.

«Hona Ferdy, utzi lekua andereñoari»

Lurra jotzen dion gona bildu du eta gainetik daraman jaka ireki. Bular gaineko puntilak harrotu ditu, euriaren hezetazuna eta bularreko txinpart artean zapaldutako xerrak.

«Sonbreilua kendu behar zenuke andereño, bustita bait daukazu eta ez da hitzegitearren baina, ba al dakizu gure aurrean bizi den auzokoa nor den? Non bizi zara? beno ez du axola, ez duzu ezagutuko orain ez bait da kalera irtetzen, bada gertatu zitzaion gure auzokoari... »

Ezpainak belarrietarantz mugitu ditu, irrifarre gozoa, sonbreiluko orratza kendu eta belaunetan utzi du. Adats horiak bular gainera etorri zaizkio, ez denak, batzuk bizkarraldera, besteak zaman behera. Sonbreiluaren sarea apaindu du «sonbreilu berria zuen, festa batetarako erosia eta festara joan aurreko igandean... » adatsak orraztu ditu esku leunez «mezatarako jantzi zuen oso apaina sentitzea bait zen bere nahi nagusia» sonbreilua hartu eta apalean sartu diok «eguraldiak cambio motzetik egin eta sekulako zaparradak harrapatu zuen» eskerrik asko esan dit «blai-blai eginda gelditu zitzaion sonbreilua, deusetarako balio ez zuela, ez zuen besterik merezi, harroputz halakoa» oso ahots finaren jabe da bere lepo luzea «ez al duzu hala uste?».

Irribarrea, ez du txorakeriei erantzuteko betarik, liburu lodian galduko zaizkio begi berdeak.

«Ezkonduta al zaude maitea?»

Burua altxatu du berrari ari ote keinu eginez. «Ez» erantzun du bortizki. A ze galdera, zer dela eta galdera hura? Ezkongabea da, laket dut, seguraski izanen du senargairik, amoranterik... baliteke bihar bertan ezkontzeko izatea... ez, ez dut uste. Ezin du nerea besterik izan.

Geldiunea. Hogeigarren orrialdean. Ordu batek.

Mendi tontorretan elur apurra dakust. Sudur punta gorritu saio, bufanda eskaini behar diok «Ene jauna, bufanda hori utziko bazenit Alex-entzako... Mila esker! Jakingo bazeni ... » Zertaz pensatzen ote dago? Noraino ote doa? «Atzo gauean hamalau doministiku egin zituen, bata bestearen atzetik, arnasarik hartzeko betarik gabe, bertan ito behar zuela, gehiago ez genuela kontatuko uste izan nuen». Lepoa jarriko nuke Tractatus philosophicus irakurrita duela «egia da herenegun izozki bi jan zituela baina... beti izan da ume hau... » poesia bat oparitu behar hioke «gripetik gripera» baina ze demontre! Orain ezinezkoa zait idazten jartzea «eta gripea ez baldin bada bizixoak eta... » Bapateko amodioetan sinesten ez duten horietarikoa haizela azaldu behar diok baina bere mihiaren zaporea dasta dezakeala. Bai, egia da, sekula ez naiz hain erakarria sentitu, betidanik ezagutzen dudan gorpua eta sarritan ferekatzean dadarka entregatu zaidanaren jabe dela nioke. Arrazoiak geldi arazten hau, ez egiok jaramonik egin buruari, bihotzari baizik «Ferdy hiru hilabete t'erdi besterik ez zituela itsasoa bezain pulmonia handiaz jabetu zen. Hiru aste bota nituen negarrez». Hitzegiok.

«Negar eta otoitz, zortzirehun eta hogeita hamar gramo galdu nituen».

Miseria.

«Beste geltoki bat».

Igogailuetan esaten diren esaldi horietarikorik ez. Inork ez dik aintzakotzat hartu. Begiratu egin dit. Baina hori ez duk nahikoa.

Igorri iezaiok mezua hankekin. Hankekin? Bai, emakumeak irrikitan egoten dituk gizonak iniziatiba har dezan. Ez zaio gustatuko. Probatu gabe ez dut jakingo.

Geldiunea. Hogeita bat garren orrialdean. Ordu biak. Gregor ametsetan galtzen zela darakusa.

Azal zuriaren epeltasuna arnastu dut. «Noraino zoaz andere?» Hurrengoa da nirea, esan du. Laket dut. Atsegin nau «Medikuak ez zigun inongo itxaropenik ematen, gazteak ginela eta haur gehiago izango genituela esan zigun. Zer deritzozue?»... Gure begiak gurutzatu egin dira... «Noski! Zuek ezin jakin hori esatea zer den ama batentzat, bederatzi hilabetetan sabelean eraman duen biziagatik hori esatea zer den ezin jakin zuek ez... ». Ez iezaiok jeitzi berria den behiaren begiekin soka gelditu. Disimulatzea emakumeei dagokien lana duk. «Ama, nor da hori?» Begi zuri bi, ahur zuria eskari «eskale bat, ez begiratu Alex, utzi, joango da eta», bederatzi urtetako mutikoa, ile kiskurra «eskale beltza ama!» gosea salatzen duten begi irekiak, zirkin egiteko baino mantsoago daudenak «eskaletaz ezin da fidatu, beltzetaz are gutxiago» dio emakume lodiak. Duela urte batzu patrikan eduki ezingo nituen txanponak luzatu dizkiot eta krabelin bat eskaini dit, krabelin beltza. «Nork ote daki krabelin horrek zer bide igaro duen, non egon den, zenbat gaisotasunen ekarle den... » Erosi ez dudan lehen oparia. Ogibitarteko baten truk lortu didan krabelina.

–Zuretzako eman dit andere!

Harritzekoa hire prestusia baina zoriontzekoa.

–Mila esker.

Masailak gorritu zaizkio. Baina irrifarre lotsakorrarekin batera eskua luzatu dik. Nera da! Maite zaitut. «Nik ez, nire ez didate eskatzen, aurretiaz bait dakite nigandik ez dutela txotxikirik aterako. Gero zer? Adarra jo dizutela! Hori bai ezetz! Gose direnak ere egongo dira, nik ez diot ezetz baina hala bada, lan egin dezatela, besteok bezalaxe.. Inoiz ikusi al duzue eskalerik ogibitartekoa jaten? Nik sekula. Neroni gertatu ez balitzait... diruaren ordez janaria emango niola esan eta ihes... ».

Hurrengo geltokia andereñoarena da, berea, minutuak falta dira heltzeko. Bihotza bizkortu zaik. Ez zekiat zer egin.

«Gure auzoko Karmelaren koinatak dioenez, ba omen da dirua irabazi asmoz aste buruetan, etxeko jantzi zaharrenak soineratu eta aldameneko herrian eskean ibiltzen denik ere... inolako premiarik gabe eskean... »

Lehiotik begira dago, zine irudiak bezain bizkor igarotzen diren zuhaitzak agurtzen. Hala ongi etorria ematen. Liburua utzi du.

«Gure kontura aberasten... holakoak ere ikusi behar... Txanpon bat lortzen dutenerako han doaz ardotarra, jokura edo gozoren bat erostera. Pekatariak... »

Liburuak kontatzen duen istorio erdia ezagutzen du. Udazkenean jasotakoa dirudien hosto batek gonbidatzen du ehun eta hogei eta bostgarren orrialdean, bezperako irakurketako ordu eta minutu geldietan utzitako paragrafoa berrartzera. Udazkenekoa ezerik, udakoa zein udaberrikoa ere izan daiteke liburu erdian gordetzen duen hostoa, eguzkia beranduxeago etxeratzen den arratsalde luze horietan eskutitzat idatzi, brodatu eta lorategian arinekean ibili ondoren, kaleko umeen garrasi, kantu eta irribarreak airean itsatsita gelditzen direneko arrats gorri baten zeinu izan dadin jasotako hosto berdea izan liteke, denboraren poderioz ximurtua eta kolorez aldatu dena.

«Umeak dira txarrrenak. Gurasoek ondo dakite haurtxo baten begiak bezain gauza hunkigarririk ez dagoela, ondotxo jakin ere. Eta bitartean beraiek zer? Ume eginean... »

Trena gelditu da. Sonbreilua jantzi du. Erregina dirudi. Boltsak eskuratu dizkiot eta liburua horietariko batetan gorde. Izkuta itzat eskuak, ez dakit zer egin beraiekin, atera lagun iezaiok, orain mugitu ezkero traba egin behar diot, boltsa bat hartu eta kaira eraman, eta gero zer?, gero zer diok? Nik hire adina banitek...

«Jauna, inoiz ikusi al duzu ijito meharrik?»

Atea ireki du.

«Ba nik... »

«Eta ijito gaisorik?»

Ez diok lagundu.

«Edo erretzen ez dakienik?»

Kaian doa, trenak txistu, agur nere bihotza, agur nere...

«EZ, EZ DUT SEKULA IKUSI, ALUA!»

Triste hago, bai goibel nago, esan diat bada zer egin behar huen, bai, baina ez nekien eskuak non gorde, nola tentetu, zer esan, emakume berritsua izan da...

Lurrean, lurrean nere krabelina beltza, altzoan gorde du liburuko istorioan pertsonaia nagusi bilakatu denean baina geltokira heltzean, zutitu eta jausi egin zaio.

Hirurak. Hogeita laugarren orrialdean eta pausa.

Lorea jaso eta emakumea bera bailitz usaitu dut, begiak irekitzeko adorerik gabe, usaiaren uhinetan galtzeko prest. Berriro ikusiko al zaitut Gabriela? Bai izena fina! GABRIELA!

«Esnatu gizon, esnatu!»

«Nahiko da Ferdy!»

«Loak hartu du ama hizketan aritu da!»

«Heldu al gara?»

«Bai jauna»

Tentetu egin beharko duk gizona, andreak bere hiru deabruekin irtetzea nahi baldin baduk.

«Zure emaztea Gabriela deitzen da, ez da? Ametsetan behin eta berriz dei egin diozu. Zorte oneko emakumea, Gabriela!»

Besoa luzatu dik, musu eman. Kontent joaten utzi diot. Nor daki zer izen jarriko didan, markesa, kontea, dukea... «Geltokira heltzean, nereganatu eta musu eman zidan, nik esetz eta berak maite ninduela, nik ezkonduta nengoela eta orduan berak, nere

maitasunik lortzerik ez baldin bazuen, apaiztegira zihoala... » istorio horrekin ileapaindegiko guztiak dardarka utziko ditu.

Etxerantz noa, trenean ia-ia ez dago inor. Maitemindu egin naiz.

Pausa. Laurak.

Ostatura heltzean, emazteari jakin arazi behar diot lortu dudala, Gabriela dela, idazten hasiko natzaiola eta nitaz gogora dadin lortuko dudala. Emazteari esan behar diot ez noala gehiago etxera begi haiek berriro ikusi gabe, esan behar diot trenean ibiltzea zaldiko maldiko bat dela, txanpon bat buelta bat, umetako soinuz bete dela ene bihotza, krabelina beltza oparitu didatela... Gabriela...

Gabriela! Bihar trena hartuko dut eta etzi eta etzigabon, berriro ikusiko zaitudan arte...

Hementxe bukatzen zen, ordu bete bizkorrean idaztia ziruden hogeita bostsgarren orrialdea. Hurrengo zazpi orrialdeak falta ziren eta kaxoian burua sartu ondoren, zazpi, zazpi orri ximurtu bilatu nituen eta hamalau krabelin, hamalaurak beltzak. Orri ximurtuetan zer idatzi ote zuharen irrikaz, mahai gainean zabaldu eta ordenaz jarri nituen «Gabriela maitea» jartzen zuen denetan, data eta Gabriela maitea, baina deus gehiago.

Bostetako trena pasa berri zen.

Bidaiaren nekeak gaindituta ohean sartu nintzen sabaiko G handiari jarraitzen zitzaizkion hizkiak irakurri ondoren.

Zortziretako trenak esnatu ninduen; lokamutsaren eraginak artegatu bainindu, mahaian jarri eta hogeita bostgarren orrialdea irakurri nuen berriro, «Gabriela, bihar trena hartuko dut eta etzi eta etzigabon, berriro ikusiko zaitudan arte... »

Ez zen ametsa izan, gela hartan ameslari bat egona zen, trenean desagertua, Gabrielaz maitemindua, inspirazioz josia.

Lerrun berdinak segitzeko gomendatzen zidaten ahots tentalariek hots egiten zidaten.

Trena hartzera nindoala esan nion errezepzionistari eta gela miatuko zidala erakutsi zidaten haren begi mesfidatuek.

–Nora jauna? Galdetu zidan lehiatilako andereñoak.

–Berdin da. Edonora, Gissen-era edo...

–Ulertzen du –ihardetsi zidan–

–Nola andereño?

Begirada zorrotzak izoztuta utzi ninduen.

–Bigarren klasekoa izan dadila, gaineratu nion.

Bagoian sartu eta lehio ondoan jarri nintzen. Trena ia-ia hutsik zegoen: gure aitona-amonek biltzen zioten erromantizismoa itzalia zen. Txangoa prestatzen hileak bota zituzten mutil koskor talde bat sartu zen. Geroxeago, atzerritar batzu; txanponik ezagutu ez eta hamar minutu egin zuten pasilo erdian dirua batak, tikea besteak, operazio matematikoak eginez.

Taldea lehenengo barrezka eta algaraka, gero kantatzen hasi eta konturatzeke, trenak geltokia utzia zuen. Hainbat herri ttipi pasatu genituen geldiunerik egin gabe. Urduri nengoen.

Eguraldi goibela lehioz kanpo, aire geldoa, egunak ez zuen iratzarri eta bizitzaren trenari segitzerik nahi. Maindire euritsuen atzean izkutatu zen eguzkia, ez zuen bidaiarien espazio aldaketaren lekuko gertatu nahi.

Algara ozenak entzuten ziren eta bapateko isiluneak. Mutil taldea jolasten zebilen. Burua bueltatu eta begira gelditu nintzaien. Berehala, zertxobait diferent nabari nuen guztien artetik, mutiko beltz bat, «eskalea». Taldekoek bazkaritarako zeramaten ogibitartekoak atera eta eskaleari eman zioten. Beltza hortzak utzi beharrean, animalia amorratua bailitz, mutil taldearen jostailu zela, guztien erdi-erdian jarri zen.

Eskuartekoa bukatu zuenean, jeiki, niregana hurbildu eta ezer jan gabekoaren begi zuriak erakutsiz, ahur zuria luzatu zidan. Izkribuan agertzen zen emakume lodiak zioenaz gogoratu eta arrazoi zuela iruditu zitzaidan: ez dago ijito argalik. Txanpon bat eman

nion eta eskerrik eman gabe, trenaren bihotza hunkitu beharrez abiatu zen. Eskergaitzekoa alena!

Aspertzen hasia nintzen, tentetu, patrikan pisua besterik egiten ez zidan liburua aulki gainean nere lekuaren erretserba gisa utzi eta trena exploratzera abiatu nintzen. Punta batetik bestera korritu nuen. Gazte taldearen kantak trenbide herdoilduaren gainean pausatuz zihozazen, gizon hordituak mostradore azpian bezala. Ez nuen andre lodi eta berritsurik ikusi, ez umerik nere bagoikoak ezerik, ez Gabrielarik.

Erreserbatuta utzitako lekura bueltatu, jarlekuan utzitako liburua hartu eta azpian krabelin beltz bat erne zela konturatu nintzen. Mutiko beltza izan da, pentsatu nuen bezperan irakurri izkribua bergogoratuaz.

Baina kezka biziak kolpatu zidan barrua, krabelin beltzik ez bait da esistitzen!